

## **BASOKO ARBASOAK**

Mendiko errepide batean auto gorria aldapan gora zebilen. Zuhaitzetan zeuden txoriek kotxe barrutik zetorren musika entzun zezaketen. Atzeko eserlekuetan eserita, neskato ilehori bat eta mutiko beltzaran bat ikastolan azkenekoz ikasitako abestia dantzatzan zuten, aurreko aldean gurasoak isil-isilik zeuden bitartean. Neskatoa Aiora deitzen zen, eta mutikoa, Beñat. Amak Itziar zuen izena, eta aitak, Unai. Bat-batean, Unai irratia itzali zuen. Neba-arrebak izoztuta gelditu ziren hasieran, baina berehala kexatzen hasi ziren.

—Laster helduko gara — esan zuen Itziarrek, eskuak bolantetik kendu gabe.

—Gainera, heldu baino lehen ipuin bat kontatu nahi dizuegu — bota zuen Unai.

Haurrak pozez zorutzen jarri ziren ipuin bat kontatuko zietela entzun zutenean, eta berehala ahaztu ziren musika kentzeak sortu zien haserrez.

—Ipuinaren izenburua *Basoko arbasoak* da — azaldu zuen amak.

—Zer dira arbasoak? — galdetu zuen Aiorak.

—Arbasoak aitona eta amonaren gurasoak ziren, eta guraso horien gurasoak. Denak baserrietan bizi ziren — erantzun zion Itziarrek —. Baina hobe aitak ipuina kontatzen badizue, nik adi-adi gidatu behar dut.

Beñatek eta Aiorak belarriak zorroztu zituzten. Aita hitz egiten hasi zen:

—Amonak kontatu zidan istorio hau txikia nintzenean. Badakizue bere baserriaren atzeko aldean baso bat dagoela. Ba badirudi oihan horretan, ilunabarrean, batzuetan pertsona batzuk ikusten direla zuhaitzen artean ibiltzen. Gizaki horiek antzinako arropaz jantzita daude eta oso irribarre alaiak dituzte. Gizon-emakume horiek gure arbasoak dira, eta langileak diren neska-mutilek bakarrik ikus ditzakete, baserriko lanetan laguntzen dutenek. Nik txikia nintzenean haiekin topatzen nintzen baratzean egon ondoren. Baina orain nagusia naizela, ezin ditut gehiago ikusi. Zer pena!

Aiorak txalo egin zuen.

—Ziur ipuin hori kontatu diguzula zuei baserriko lanekin laguntzeko — esan zuen Beñatek.

Familia osoa barrezka hasi zen.

Minutu batzuk geroago, auto gorria mendiko etxe handi baten aurrean gelditu zen. Etxeko sarreran aitona-amonak zeuden, eta umeak kotxetik irten bezain laster, besarkada bana eman zieten. "Bost" eta "Hiru" txakurrak ere handik zebiltzan, zaunkaka eta saltoka.

—Aitak oso ipuin arraro bat kontatu digu — esan zion Beñatek amonari —. Suposatzen da baratzean tomateak eta azenarioak biltzen baditugu, basoko mamuak ikusiko ditugula.

—Orduan istorioa txarto kontatu dizue, ez duzue bakarrik baratzean egon behar, sukaldean eta etxeke beste tokietan ere behar zaituztegu — bota zuen amonak, irribarretsu.

Etxera sartu eta berehala, haurrak egongelako sofán eseri ziren. Aiorak eta Beñatek telebista ikusi nahi zuten, ala gurasoen mugikorrekin jolastu. Baina aitonak telebistako kablea eraman zuen eta mugikorrak sukaldeko armairuan gorde zituen, itzali eta gero.

—Kanpoan ordu pare batez jolastu eta gero nahi duzuená egin ahalko duzue hemen. Aprobetxatu egin behar duzue mendian zaudetela, hirian egin ezin ditzakezuen gauzak probatzeko — argi utzi zien amonak.

Neba-arrebak ez ziren sofátik altxatu, haserre zeuden berriro. Hormako erlojuak tiki-taka egiten zuen etengabe. Denbora geldo zebilela zirudien. Aiora eta Beñat berehala aspertu ziren. Gainera, etxe barruan euliak zeuden, eta mamorro hegalariek ez zituzten haurrak bakean uzten.

Aiora zutik jarri eta baratzaren ondoan zegoen leihorantz hurbildu zen. Kanpoan, gurasoak eta aiton-amonak sagarrak biltzen zebiltzan. Neskatoa baserritik irten eta sagarrondoan azpian jarri zen. Gurasoek botatzen zituzten frutek pilota handiak ziruditen, eta dibertigarria zen haiek airean harrapatzea. Gero pilota berde horiek saski handi batera botatzen zituen. Aiorak irri egin zuen.

Beñatek bere arrebaren irria entzun zuen. Pentsatu gabe leihorantz korrika egin zuen. Sorora begiratu zuenean, Aiora sagarrekin jolasten ikusi zuen. Mutikoa etxetik atera zen, eta frutak airean harrapatzen hasi zen ere.

—Ea nork hartzen dituen gehiago — esan zion Beñatek Aiorari.

Haurrak elkarrekin lehian hasi ziren. Oso azkar, gurasoek botatzen zituzten sagar guztiak biltzea lortu zuten. Ama eta aitak elkarri begiratzen zioten, gertatzen ari zena sinetsi ezinda.

Neba-arrebek bata bestearen aurka jolastu ziren baratzeko gainontzeko fruta eta barazkiak biltzeko. Batzuetan Aiorak irabazten zuen, beste batzuetan Beñatek, eta askotan berdinketa suertatzen zen.

Soroko lanekin amaitu ondoren, baserriko txoko guztietatik igaro ziren lehiakideak. Oilategian, arrautza gehien jasotzen zuena Aiora izan zen. Ukuiluan, behiei bazka ematen lehenago amaitu zuen Beñatek. Biek lagundu zuten mahaia ipintzen, sardexka eta koilarekin musika egiten zuten bitartean. Ikastolako euren abesti gustukoena ere abestu zuten, labanekin edalontzietan kolpeak emanez.

Familia osoak elkarrekin bazkaldu zuen. Entsalada, tortilla eta goizean bildutako sagarrak jan zituzten. Amonak hurrei txokolatea eman zien, egin zuten lana eskertzeko. Bazkalostean, denak beren logeletara igo ziren, lo-kuluxka bat egiteko.

Esnatu ondoren, Aiora eta Beñat kanpora irten ziren berriz. "Hiru" eta "Bost" txakurrekin zelaitik korrika ibili, askako zapaburuak harrapatzen saiatu, eta zuhaitz txikietara igotzen saiatu ziren, gurasoen laguntzarekin. Eguzkia mendien atzean ezkutatu zenerako, neka-neka eginda zeuden. Orduan, aita-amak etxerantz jo zuten, aiton-amonekin kartetan jokatzeko.

Neba-arrebak belarrean eserita zeuden. Ez zeukaten hitz egiteko ala abesteko indarrik. Bat-batean pauso hotsak entzun zituzten, basotik zetozen. Aiorak eta Beñatek zuhaitzetara begiratu zuten. Haritzen, pagoen eta gaztainondoan artean pertsona batzuk zebiltzan. Hurrek hiriko azokan jantzitako baserritar arropak zeramatzaten soinean. Gizaki misteriotsu horiek elkarri belarrira xuxurlaka hitz egiten zioten. Arbasoak ziren. Zerua gorri-gorri zegoen eta gaua laster helduko zen. Arbasoak basoan barrena urrundu ziren.

Afaltzeko ordua heldu zenean, Itziar eta Unai beren seme-alaben bila hasi ziren. Ez zeuden baratzean, ez zeuden ukuiluan, ezta zelaian ere. Kezkatuta, aita-amak haurren logelara igo ziren, aiton-amonekin batera. Atea ireki bezain laster denak lasaitu ziren. Aiora eta Beñat ohean etzanda zeuden, lo. Ilargiaren argiak haien aurpegietan itzalak sortzen zituen, eta bi umeak irribarre egiten ari zirela zirudien.

*Ameslari*